

Istripua izan da berriro
A8 autobidean.



Beste hiztegi bat erosi dut
bulegorako.





Gola egin diote osterera ere atezainari.



Beste planeta bat aurkitu
dute Eguzki Sistematik
harago.



Botoa eman UIK taldeari

Beste hautagaitza bat aurkeztu da
kontseilurako.

Esapide horien eta antzekoen orde, honelako hauek entzuten eta irakurtzen dira batzuetan:

- *Istripu **berri bat** izan da A8 autobidean.
- *Planeta **berri bat** aurkitu dute Eguzki Sistematik harago.
- *Gol **berri bat** egin diote atezainari.
- #Hiztegi **berri bat** erosi dute bulegorako.
- #Hautagaitza **berri bat** aurkeztu da kontseilurako.

Berri izenondoa ez da "zenbatasuna" adierazteko erabili behar.

- Istripua izan da berriro A8 autobidean.
- Beste istripu bat izan da A8 autobidean.
 - Orain arte izandakoez gainera, beste istripu bat izan da.
 - *Istripu **berri bat** izan da A8 autobidean.
- Beste planeta bat aurkitu dute Eguzki Sistematik harago.
 - Lehen aurkitutakoez gainera, beste bat aurkitu dute.
 - *Planeta **berri bat** aurkitu dute Eguzki Sistematik harago.
- Gola egin diote osterera ere atezainari.
- Beste gol bat egin diote atezainari.
 - Egin dizkioten golez gainera, beste bat egin diote.
 - *Gol **berri bat** egin diote atezainari.

Berri izenondoa zahar izenondoaren antonimoa da.

- *Istripu **zahar** bat izan da A8 autobidean.
- *Planeta **zahar** bat aurkitu dute Eguzki Sistematik harago.
- *Gol **zahar** bat egin diote atezainari.

Bereizi egin behar da:

- **Beste hiztegi bat** erosi dut bulegorako. (ZENBATUSUNA)
 - Lehen hainbat hiztegi genituen bulegoan; orain, bat gehiago.
- **Hiztegi berri bat** erosi dut bulegorako. (NOLAKOTASUNA)
 - Lehen geneukan hiztegia argitaraldi zaharrekoa zen, edo zaharkiturik, higaturik, zegoen.

Bereizi egin behar da:

- **Beste hautagaitza bat** aurkeztu da kontseilurako. (ZENBATUSUNA)
 - Lehen hiru hautagaitza ziren; orain, lau.

- **Hautagaitza berri bat** aurkeztu dute kontseilurako. (NOLAKOTASUNA)
 - Berritu egin dute lehengo hautagaitza.